



Aldatu gidoia euskararen alde

Eusko Jaurlaritza eta EiT布伦 kultura eta ikus-entzunezko politikak errotik aldatzearen aldeko kanpaina



Intza Gurrutxaga eta Mitxel Elortza



Nor gara

Hainbat gizarte eragile eta ekimenek bat egin eta abian jarri dugun kanpaina herritarra da ALDATU GIDOIA EUSKARAREN ALDE.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu gidoia aldatzeko euskararen eta euskaldunon hizkuntza eskubideen alde; **kultura eta ikus-entzunezkoen politikak errotik aldatzeko** eta **euskara eta euskarazko kultura erdigunean jartzeko.**



Kanpainarekin bat egin duten eragileak:

ELA, STEILAS, LAB, Euskalgintzaren Kontseilua, UEMA, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Ikastolen Elkarte, Gazte Euskaltzaleon Sarea, Iratzar Fundazioa, Alkartasuna Fundazioa, IKA euskaltegiak, EAB Euskal Altoreen Batasuna, BIEUSE bikoiztaile euskaldunen elkarte, EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte, LANARTEA euskararen langile profesionalen elkarte, Sortzen, Euskal Eskola Publikoaren Aldeko plataforma, Xaloe Telebista, Pantailak Euskaraz, Naziogintza. Netflix Euskaraz, (H)Itzartu EITB, Zer Non Ikusi, Euskal Encodings, Zinemak Euskaraz, Game Erauntsia, Arnas Dezagun, Hau Pittu Hau, Administrazioan Euskaraz taldea, Zappingzalea eta Mangaberri



Gaiaren estrategikotasuna

Kulturak eta ikus-entzunezkoek berebiziko garrantzia dute gizartearen kohesioan eta bizikidetzan:

Erakundeetatik egiten diren **kultura politikak balio behar dute:**


- ❑ **Balore hezitzaile** eta **eraldatzaileak sustatzeko**, jendartean ikuspegi kritikoa eraikitzeko.
- ❑ Merkatuaren inertiak gainditu, **eskubideetan eta demokrazioan sakontzeko** eta gizarte justuagoa eraikitzeko.
- ❑ **Euskara biziberritzeko** eta euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Justizia soziala, bizikidetzaz, integrazioa, feminismoa eta hizkuntza eskubideak **eskutik hartuta** datoz, ezinbestean.



Euskararen kale erabileraren bilakaera.

Euskal Herria, 1989-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021.

Ikus-entzunezkoen paradigma aldaketan, euskara **urgentziaz erdigunean jarri beharra:**


Hizkuntza biziberritzeko eta euskararen erabilerak aurrera egiteko, premiazkoa da egungo ikus-entzunezkoen egoerari eta kontsumo ohiturei arreta jarri, eta, **estategiak eguneratzea**, eta, EITBz gain, EITBz harago ere euskararen aldeko hizkuntza politikak abian jartzea.

Egoeraren diagnostika

IKUS-ENTZUNEZKOAK, ESTRATEGIKOAK HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO

Pantailetan gaztelera-ko fikzioa da nagusi, euskarazkoak ia tokirik ez duen bitartean.

Ikasleek gehien ikusitako telesailak (%). DBH eta Batxilergoa.




Iturria: UEMA, 2022

UEMAk LH4tik Batxilergoko 2. maila bitarteko ikasleengan egindako ikerketak adierazten du **gaztelera-ko fikzioa kontsumitzen dutela ikasleek**, euskarazko eskaintza duinik ez dagoelako.



Azken telesailaren hizkuntza (%)



■ Euskara ■ Gaztelania ■ Ingelesa ■ Beste bat ■ Telesailik ez

Iturria: UEMA, 2022

Egoeraren diagnosis


03

aldatu
gidoia

TELEBISTA DIGITALAREN ETA IRRATIAREN ESKAINTZA EAE-n

LTD telebista digitalaren eskaintza hizkuntzaren arabera

- Telebista linealaren eskaintza gazteleraz
- Telebista linealaren eskaintza euskaraz



[Iturria](#): Euskarazko Wikipedia, 2023

Telebista digitalaren **33 telebista-kate** jasotzen dira guztira etxeetan: **30 gazteleraz eta 3 euskaraz**. Irrati-eskaintzari dagokionez, **28 irrati-kate** jasotzen dira guztira: **23 gazteleraz eta 5 euskaraz**

([Iturria](#): Euskarazko Wikipedia, 2023, Bilbo Handiko datuak)

Irrati-eskaintza hizkuntzaren arabera

- Irrati-eskaintza gazteleraz
- Irrati-eskaintza euskaraz



[Iturria](#): Euskarazko Wikipedia, 2023



Egoeraren diagnosis

03

aldatu
EUSKARAREN
ALDE
gidoia

EITB EUSKAL IRRATI-TELEBISTA

ETB1 kateak %2,1eko ikusle-kuota izan zuen irailean. **ETB3** kateak %0,1ekoa (azkenekoa da haurrentzako kanalen artean).

Audientzia maila horien aurrean, etsipena nagusi. **Ez dugu** EITBko buruen aldetik **egoera iraultzeko ahaleginik antzematen.**

Erakundeetatik **audientzia-mailak** eta **euskararen erabilera-mailak argudiotzat** erabiltzen dira, ETBn eta ikus-entzunezkoetan euskararen alde **gehiago ez egiteko.**



Egoeraren diagnosis

03

aldatu
gidoia

EITB EUSKAL IRRATI-TELEBISTA

Euskarak telebistan eta ikus-entzunezkoetan bidea egiteko duela esaten diguten adierazleak, hemen eta han:

- **Euskadi Irratiak 100.000 entzuletik gora** eta **Gazteak 60.000 entzuletik gora** (ekaineko datuak). [Iturria](#): EITB.eus, 2023,.
- Duela urtebete **SX3** katalanezko haurrentzako katea eraberritu zuten, **aurrekontua 15 milioi eurora handitu**, eta **liderra da haurrentzako kanalen artean**, Clan, Boing eta Disney Channel gaindituz (%10,9ko share-a, 4-12 urte bitarteko ikusleen artean). [Iturria](#): EINacional.cat, 2023ko urria
- **Galesko S4C** telebista publikoak **galeseraz emititzen du**, programazioaren %80a **ingelesez azpidatzita** ematen duelarik. **2011an**, asteko **%23ko irismena** edo reach-a izan zuen kateak (galeseraren hiztun kopurua gurean baino baxuagoa da: %21ek hitz egin dezake; beste %5ek ulertu). [Iturria](#): Josu Amezaga, 2012, 'Euskal Telebista 30 urteren ostean' ikerketa lanean.



Egoeraren diagnosis


EUSKARAZKO EKOIZPENA

Inbertsioa ikus-entzunezkoetara:

Ekoizpenari dagokionez, Estatu espainiarrak hizkuntza gutxituentzat bideratzen duen **diru funts multzoaren banaketan, EAE atzean** gelditu izan da betidanik.

2022an, Kataluniak funtsen %71 jaso zuen, 7,5 milioi euro. **EAEk**, aldiz, funtsen %7,2 jaso zuen soilik, 760 milia euro.

Estatuko Zinemaren Legean aurreikusitako Hizkuntza Koofizialen Funtsaren banaketa 2021ean



Iturria: Ibaia, 2023. Egiletza: Aldatu Gidoia.

Egoeraren diagnosis

EUSKARAZKO EKOIZPENA

Inbertsioa euskarazko ikus-entzunezkoetara:

2021ean Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezko ekoizpenetan egindako inbertsio osoaren %25 soilik euskarazko lanetara (568,648 euro).

Eusko Jaurlaritzaren 2024ko aurrekontu-proiektuan, euskarazko lanentzako 2.000.000 euroko diru-lerro berezia martxan jartzea aurreikusita dago. **Begi onez ikusten dugu neurria, baina ez nahikoa** deritzogu. Izan ere, euskarazko lanentzat diru-lerro horrek **inbertsio osoaren %35a** suposatuko luke soilik.

EITBk euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenera bideratutako diru-partidak

	2021		EJren 2024 aurrekontu-proiektua	
Inbertsioa ikus-entzunezko ekoizpenetara guztira	2.274.593,43 €		5.775.064 €	
Inbertsioa euskarazko ekoizpenetara	568.648 €	25%	2.000.000 €	35%
Inbertsioa gaztelerazko ekoizpenetara	1.705.945 €	75%	3.775.064 €	65%

Oharra: Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrak ezartzen du telebista publikoek urtero % 6ko ekarpena egin behar dutela zinema-lanen ekoizpena aldeztuz aurretik finantzatzeko.

Iturria: Ibaia, 2023, eta, Eusko Jaurlaritzak, EAEko 2024ko Aurrekontu Lege Proiektua, 2023. Egiletza: Aldatu Gidoia.



Egoeraren diagnosis

EUSKARAZKO BIKOIZKETA

Planifikatutako gainbehera baten historia:


1991ean 1.589 ordu bideratu ziren ikus-entzunezkoak euskarara bikoiztera. **2019an**, aldiz, urtean **222 ordu** bikoiztu ziren (gaztelaniazko bikoizketa orduak barne).



Argazkia: Berria, 2021

Euskarazko bikoizketa orduak urtean EITBn

1990tik 2020ra arteko eboluzioa



Iturria: Berria, 2021, Urtzi Urkizuren 'ETBko euskarazko bikoizketa, hilda' artikulua. Egiletza: Aldatu Gidoia.

Bikoizketa: aratu gabeko arloa

Bikoizketari **prestigioa** eta **duintasuna** itzuli behar zaio.

Erakundeek eta alderdi politikoek, **bikoizketa arloko hitzarmen kolektiboaren alde egin behar dute.**

Egoeraren diagnosis

ZINEMA-ESKAINNTZA

Zinema-eskaintza euskaraz:

Urtean, **10 film euskarara bikoiztuta**,
gehi **5 film euskaraz ekoiztuta**.

Emanaldien **%99 gazteleraz**; **%1 euskaraz**. (Iturria: Berria, 2022, Pantailak Euskaraz-en datuetan oinarrituta)

Euskaraz **1000 - 1500 emanaldi urtean** (estimazioa).

Zinema-eskaintza katalanez. Film eta emanaldi kopurua urteko, filmaren bertsioaren arabera.



	Filmak katalanez guztira	Jatorrizkoa katalanez	Katalanera bikoiztuta	Katalanez azpidatzita	Emanaldiak	Jatorrizkoa katalanez	Katalanera bikoiztuta	Katalanez azpidatzita
2021	191	27	115	49	11.547	1837	9094	616
2020	162	31	88	43	7.406	2035	4536	835
2019	277	44	125	108	22.272	3368	15338	3566
2018	292	53	118	121	19.498	2958	12111	4429
2017	289	48	110	131	33.233	10958	17262	5013
2016	263	39	90	134	25.471	2936	17852	4683
2015	163	33	75	55	27.287	7009	19315	963
2014	178	42	91	45	22.816	4122	16874	1820
2013	121	31	61	29	22.642	7623	14169	850
2012	125	30	75	20	39.589	11523	27675	391
2011	137	40	66	31	30.252	12153	16251	1848
2010	149	53	68	28	26.429	13841	10789	1799

Iturria: Generalitateko Kultura Saila, 2023


Egoeraren diagnosis

STREAMING PLATAFORMAK: ATENDITU GABEKO ERRONKA

Streaming plataformetara harpidetutakoak jada populazioaren erdia baino gehiago dira: **2021ean % 50** izan ziren eta **2022an % 54** izan dira (Iturria: CIES 2018-2022)

55 urte azpikoen 10etik 8 eta 7 bitartean dira streaming plataforma dutenak, 55-64 artekoen erdiak eta +64koen artean 10etik 2 baino ez.

Streaming Plataformetara harpidetutako populazioaren bilakaera Hego Euskal Herrian, 2018-2022



Iturria: CIES 2018-2022. Egiletza: Behategia, 2023



Egoeraren diagnosis

STREAMING PLATAFORMAK: ATENDITU GABEKO ERRONKA

Jaurlaritzak, **EITBren leihoez harago**, euskararen aldeko **hizkuntza politikak abian jarri gabe** jarraitzen du eta **ez da EITBz harago euskarazko eskaintza erakargarria bermatzen ari**.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila ez da diru-publikoz **euskarara bikoiztutako audio eta azpidatziak** plataformetara bidaltzen ari, Estatuko **Ikus-entzunezkoen Lege Orokorrak betebeharrak** hori ezartzen duen arren.

Streaming plataforma nagusietako euskarazko eta katalanezko eskaintza:

		Audioak EUSKARAZ		Audioak KATALANEZ	
NETFLIX	(5.500 edukitik)	24	0,44%	111	2,02%
DISNEY +	(3.500 edukitik)	0	0,00%	65	1,86%
HBO Max	(2.000 edukitik)	4	0,20%	143	7,15%
PRIME VIDEO	(15.000 edukitik)	36	0,24%	625	4,17%
FILMIN	(10.000 edukitik)	89	0,89%	1.519	15,19%
Guztira	(36.000 edukitik)	153	0,43%	2.463	6,84%

Iturria: ZerNonkusi.eus eta, DesdelSofa.cat, 2023. Egileta: Aldatu Gidoia.

Kataluniako **Generalitateak** **arkodioak** lortu ditu **plataforma nagusienekin**, film eta telesail berrien **estrenaldiak katalanez** izateko. Katalanezko ekoizpen propioa sendotzeaz gain, **6 milioi euro** baino gehiagoko diru-lerroa jarri du abian, **zinema eta plataformetarako edukiak katalanera bikoizteko**.

Horrez gain, **katalanezko ikus-entzunezkoetara bideratutako aurrekontuak hiruiztu** ditu. **2020an, 9,9 milioi euro** bideratu zituen katalanezko ikus-entzunezkoetara. **2023an, 32,6 milioi euro**

(Iturria: Naciodigital.cat, 2023ko urriaren 27a)



Argazkia: 20minutos, 2023

Egoeraren diagnosis

EUSKARAZKO KULTURA ETA SORKUNTZA, EZKUTATUTA ETA PREKARIZATUTA

Tamalgarrria da euskarazko kulturako sortzaileen egoera. Erakundeen babesik gabe, merkatuaren menpe dagoen kultur industria gailendu da. Horrek gogor kolpatu die kulturagintzan eta sorkuntzan euskaraz ari direnei.



Argazkia: Eusko Legebiltzarra, 2023

Kultura eta ikus-entzunezkoen politika berritu horien **muina kulturako eta ikus-entzunezkoetako euskarazko sorkuntza lanek** osatu beharko dute.



Erakundeei **merkatu logikarekiko morrontza astintzea**, eta, **euskarazko sormena eta kultura sustatzea**, gizarteratzea eta **ikusgarri egitea** dagokie.

Gure eskariak

- 1** Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren urteko **aurrekontuaren %5a euskarazko ikus-entzunezkoetara** bideratzea (biztanleko 9 euro urtean). %5 horren **bi heren euskarazko ekoizpenak finantzatzera** bideratzea, eta, **%5 horren heren bat** zinema eta plataformetarako **edukiak euskarara bikoiztera** zuzentzea.
- 2** EITBk urtean edukietara bideratutako **diru-partidaren %75 euskarazko eduki eta programetara bideratzea.**
Bi urtetan, haur eta gaztetxoei zuzendutako edukietara bideratutako aurrekontua progresiboki handitzea, bigarren urtean, egun bideratzen den **aurrekontua hirukoiztera** iritsiz.
Euskarazko bikoizketa EITBn, urtean 1.500 orduko produkzio-mailara itzultzea. Bikoizketa arloko lan-harremanak erregulatuko dituen **hitzarmen kolektiboaren alde lan egitea.**
- 3** Diru publikoz finantzatutako **euskarazko bikoizketa eta azpidatzi guztiak egokitu eta plataformetara helaraztea.**



Gure eskariak

- 4 Inklusioaren eta hizkuntza-normalizazioaren ikuspegitik, **azpidatzien** erabilera-politikak diseinatu eta **erabilera orokortzea**.
- 5 Zinema eta plataformetako **euskarazko estreinaldiak** iraunkorki **promozionatzea**, **euskarazko eskaintza ikusgarri eginez**, euskararen sustapenaren alde eta herritarren hizkuntza eskubideen alde ariko direlako. Euskaraz sortu, bikoiztu eta azpidatzitako **lanen ondare publikoa babestu eta zaintzea**. 
- 6 **EITBn euskarazko kulturari eta sortzaileei lehentasunezko tokia egitea**. Euskarazko kulturari eta sortzaileei EITBn eta zirkuituetan **gutxieneko kuotak ezartzea**.
-  Sareko plataformetan dauden **euskarazko sortzaileak eta lanak ikusgarri egiteko** politikak abian jartzea.
- 7 Bideojokoen industriako ehun asoziatiboarekin lan egitea, **bideojokoetan euskararen presentzia bermatzeko**, eta puntako enpresen **bideojoko kontsolek** nahiz gailuek **euskara interfaze grafikoan txertatzeko**.

Azken hitza

“Eremu euskaldunenetan segur aski erdara sartzeko eta euskaltasun osoago bat ez garatzeko arrakala handienetako bat hortik (ikus-entzunezkoetatik) etorriko da zalantzarik gabe. Eremu erdaldunetako familia euskaldunetan, seme-alabak euskaraz hazi, eta, gero, etxean egindako lan hori indartu beharrean, pantailak datoz kontrako eragina egitera.”

(Berria-n, 2023ko abuztuaren 5ean)

— Iñaki Lurrebaso

(soziolinguista)

Azken hitza

“Batzuetan, iruditzen zait helburuak lausotu egin zaizkigula eta geure esentziaren zati bati uko egin diogula. Euskarazko telebistaren aldeko esfortzu bereizgarri baten falta sentitzen dut. Gure etxeko nerabeei amaiezina egiten zaie astea Goazen!-en zain. ETB1ek behar beharrezkoa dauka fikzio eta ekoizpen propioaren alde ahalegin zintzoa eta etengabea egitea.”

(Noticias de Navarra-n, 2022ko otsailaren 14an)

— **Xabier Euzkitze**

(kazetaria)



Eskerrik asko